

Lautada Mendialdea

AURKIBIDEA

GELAZ GELAKO BERTSOAK

- 3. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.A
- 4. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.B
- 5. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.A
- 6. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.B
- 7. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 5.
- 8. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 6.
- 9. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. A
- 10. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. B
- 11. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. A
- 12. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. B
- 13.orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 5. maila
- 14. orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 6. maila
- 15. orrialdea.....Ibernalo ikastola–Kanpezu–5. maila
- 16. orrialdea.....Ibernalo ikastola – Kanpezu – 6. maila
- 17. orrialdea..... Maeztu eskola – Maeztu– 6. maila

KONKTAKTUAK

- 18. orrialdea..... Kontaktuak



Lope de Larrea ikastola—Agurain
5. A

ELURRA AGURAINEN

Doinua: pasaiako herritik

Elurra Agurainera
Iritsi egin da
Eta umeak beti
Joaten mendira
Mendira iritsita
Trineotik tira
Elurra tontorrean
Ta umeak begira

Gure gurasoek ba
Daukate beldurra
Lanera joatean
Hotz hotza sudurra
Telebistetan eta
Batzutan gezurra
Gure herrian askotan
Daukagu elurra

Elurra egitean
Metro erdi inguru
Ikastola barruan
Gaude gu seguru
Patiora ateratzean
Katarroa hartu dugu
Elurrezko panpinak
Egingo ditugu

Txokolatea hartu
Ta goxo etxean
horren ondoren egon
Lo seko ohean
Eta kanpora atera
Eta azkenean
Elur gerrak egiten
Ditugu kalean



Lope de Larrea ikastola—Agurain
5. B

ELURRA AGURAINEN

Doinua: pasaiako herritik

Azkenean ari da
Elurra erotzen
Egunero gabiltza
Gu bolak botatzen
Elurrezko panpinak
Ere eraikitzen
Egun hauetan zehar
Gu ondo pasatzen

Argia joan zenean
Denak irakurtzen
Irakasleak etxean
Poz-pozik kantatzen
Etxean denak bero
Txokolatea edaten
Kalean eta plazan
Elurra botatzen

Goizeko bost t'erditan
A zelako kezka
Zegoelako dena
Elurrez gainezka
Trineoekin bota
Mutil eta neska
Eta egin genuen
Sekulako festa!

Astelehen gauean
Elurrez beteta
Argi indarra joan zen
Mekatxis porreta
Trineoan ibiltzen
Jausi nintzen eta
Eskua apurtu nuen
Ezin egin festa



Lope de Larrea ikastola—Agurain
6. A

OPORRETAN

*Oporretan
Lorolorolorololo
Oporretan
Lorolorolorooo!*

Kaixo, gure lagunak
Salouen bai gaude
Zer moduz zuek hortik
Hemen askoz hobe
Uste dugu hobeto
Gaudela zuek gabe
Ez gara mugituko
Zuek ezta ere

Oporretan...

Kaixo Hawayn gaude
Ta zu "abueliko"?
Denbora gutxi barru
Zu zara etorriko
Hondartza horian gaude
Jaten fantasmiko
Oso ondo gaude hemen
Ez gara itzuliko

Oporretan...

Zer moduz zaude Jone?
Gu ziri ta zara
Oporretan gu goaz
Ingalaterrara
Nahiko genuke joan
Beti Londresera
Urretxura bai joango
Gara zu ikustera

Oporretan...

Kaixo Luana guapa
Opari bat dakat
Gure auzoko dendan
Erosi dugu bat
Akuaparka handia ta
Mutil politenak
Uretan ondo gaude
Muxuak zuretzat

Oporretan...

Aupala Jon boludo
Argentinan nago
Estadio polita
Hementxe badago
Messi oso ona da
Hori dago klaro
Argentinan parrilla
Oso ona dago

*Oporretan
Lorolorolorololo
Oporretan
Lorolorolorooo!*



Lope de Larrea ikastola—Agurain
6. B

OPORRETAN

Doinua: ranroberra

Oporretan
Lorolorolorololo
Oporretan
Lorolorolorooo!

Kaixo lagun handia
Eta aspaldiko
Zubi handia dago
Hemen San Francisco
Ezagutu ditugu
Pilo bat mutiko
Ikastolara inoiz
Ez gara itzuliko.

Oporretan...

Kaixo ikastola ni
Oporretan nago
Rio de Janeiro naiz
Hemen oso bero
Izerditan gauero
Eta egunero
Agur ta ondo segi
Zatoz hona gero

Oporretan...

Kaixo nago Ibizan
Oso ondo pasatzen
Hemen eguzkitan bai
Morenoa jartzen
Hemen neskatxa asko
Hondartzan dantzatzen
Muxu handi bat hemendik
Segi itxaroten

Oporretan...

Zer moduz ikastola?
Gu ondo Finlandian
Aurora borealak
Gure begietan
Oreinekin ibili
Gara bai gu leran
Eta igeri egiten
gaude ur hotzetan
Topera aprobetxatzen
Laster bagaude han

Oporretan...

Kaixo kuadrila maite
Ibizan gaude
Eta hemen janzten gara
Gu oso dotore
Katamaran batean
Itsasoko errege
Hondartzan gaude gelan
Baina askoz hobe

Oporretan

Lorolorolorololo
Oporretan
Lorolorolorooo!



Lautada ikastola—Agurain
5. maila

LEHOI ERREGEA
Doinua: orioko balea

1
Lehoi erregea zegoen
Tronoan jarrita
Animali guztiak
Handik ikusita
Konturatu zenean
Izango zen aita
Sinba izena zuen
Txiki ta polita

2
Gure lehoi txikia
Hasi zen handitzen
Simba bere aitarekin
Hasi zen bizitzen
Eta bere aitatxo
Asko maite zuen
Lagun berri pila bat
Egiten hasi zen

3
Osaba gaiztoak ai
Bere aita hil zuen
Eta Simba semea
Negarrez hasi zen
Animalia guztiak
Elkar bildu ziren
Ta oihaneko errege
Izendatu zuten

4
Simba Joan Oihanetik
Eta Nala ere
Zeren ez zuen nahi hau
Izatea errege
Hienek utzi zituzten
Janaririk gabe
Haiek egin nahi zuten
Oihanaren jabe

5
Maitemindu egin zen
Simba berehala
Baina Nala emea
Ez zen ez makala
Amodioa egin zuten
Aurrean koala
Ezkondu egin ziren
Simba eta Nala

6
Errege lehoia ez
Zen sentitzen txarto
Animali guztiek
Hienak ez gustoko
Simba ta Nalak zuten
Lehoikume asko
Zoriontsu izan ziren
Behin ta betirako



Lautada ikastola—Agurain
6. maila

KORRIKA, martxoaren 19an

Doinua: Korrika EGAN

Gure hizkuntza, hizkuntza berri
Euskaldunekin mintzatzan
Gure hezkuntza polita eta
Kantu ta bertso ulertzen
Gu horregatik korrika goaz
Kaletik beti ibiltzen
Korrika iritsi heldu badela
Denok anima gaitezen

Korrika, korrika...

Euskara hizkuntza bat izaten
Korrika gu beti alai
Batzuetan egun eguzkitsua
Baina besteetan blai, baia
Egun horretan egiten da
Beti gure herritan jai
Euskara asko gustatzen zait
Eta korrika ere bai!

Korrika, korrika...

Europako hego mendebaldean
Euskal herria dago hara
Euskara ikasi nahi duena
Badoa bai AEK-ra
Gaur martxoak 19a
Gu bagoaz korrikara
Euskal Herrian bizi gara
Eta hitz egin euskara

Korrika, korrika...

Euskara asko maitatzen dugu
Lurrean eta ilargian
Kalean euskal kanta berriak
Eta bertsoak mendian
Korrika hasi beharko gara
Martxoak 19an
Batzuk poliki ta besteak
Abiadura bizian

Korrika, korrika...



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. A

HIRU TXERRITXOAK

Etxean ez zeuden ez
Batere gustura
gauean pasatzen da
oso azkar denbora
etxeko lanekin ez
zeukaten ganora
amak bota zituen
etxetik kanpora

Txikiak egin zuen
Dena lastozkoa
Ertainak berriz egin
Dena egurrezkoa
Handiak egin zuen
Dena adreiluzkoa
Bakoitzak egin zuen
Bere etxetxea

Txikia joan zen bere
Lastozko etxera
Lari laro larolaaa
Lasai bizitzera
Otsoa etorri zen
Igo zen gainera
Putz eta putz eginez
Bota zuen behera

Bigarrenengo etxea
Erraza egiten
Ertainaren etxera
Txerritxo joan zuzen
Eta otso maltzurra
haserre etorri zen
egurrezko etxea
ere bota zuen

Handiaren etxera
Doaz ate joka
Adreiluzko etxea
Eginda dago ta
Otsoa saiatu zen
Ateraren kontra
Gogor putz egin arren
Ezin zuen bota

Handiaren etxean
dantzatzen hasita
Eta tximinipean
Lapikoa jarrita
Otsoa tximinitik
Behera jausita
Ipurdia erreta
Joan zen korrika



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. B

AHATETXO ITXUSIA

Amak ipini zuen
Arrautza mordoa
Lehenagoak txikiak
Azkena handiago
Oso itsusia zen
Txikitxo gaixoa
Beste guztiak baino
Itsusiagoa

Ahate itsusia zela
Eta sentibera
Zer gertatzen zen ez zen
Konturatzan bera
Bere anaietatik
Joan zen atzera
Denek burla egiten
Zioten gainera

Baserrian negarrez
Pasa zuen denbora
Orduan joan zen
Urmael ondora
Bera bakarrik zegoen
Ez oso gustora
Horregatik joan zen
Negarrez basora

Ahate itsusia
Joan zen korrika
Eta urmaelean
Bainatzen hasita
Gero bere islada
Uran ikusita
Konturatu zen zela
Beltxarga polita

Handia egin zenean
Ze zoragarria
Ateratzen zitzaion
Askotan irria
denek eman zioten
Ongi etorria
Hura izan zen bere
Familia berria



Dulantzi Eskola - Dulantzi
6. A

TXOMINEN BEHIA

Ba omen zen behin baserritar bat
Txomin izena zuena
Bere amarekin bizi eta behi
eder asko zituena

Egun batean lo zegoela
Norbait sartu ikuilura
Behi polita lapurtu zion
Ze nolako negargura

Txomin baserritarrak
Zeukan kriston fama
Behia lapurtu eta
Egin zuen drama
Azkenean joan zen
Galdezka ai ama
Mari Domingi eta
Olentzerogana

Atea jo zuen ta
Han zeuden erdian
Problema esan eta
Aholku hau eman

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI
Argazkiak ipini
Itzazu herrian
Zure behia norbaitek
Ikusi du agian

....

Nork zeukan bere behia
Zen txominen kezka
Horregatik hasi zen
Larrear galdezka

Zezena eta bere behitxo
Maiteminduta bazeuden
Orduan berak erabakita
Zezena erosi zuen
Ipuina horrela amaituko da
Haiek han eta gu hemen
Zezena, behia ta gure Txomin
Zoriontsu izan ziren



Dulantzi Eskola - Dulantzi
6. B

OLENTZERO ETA ASTOA

Gure Olentzero eta astoa
Oso Lagunak zirela
Egun batean gertatu zena
Kontatuko dut horrela

Olentzerori ahaztu zitzaion
Janaria ematea
Ta horregatik haserretu zen
Bere astotxo maitea

Astoaren janaria gustuko
Ez zuela edukiko
Ta bere astoa joan da basora
Janaria bilatzeko

Olentzero oso triste dago
Eta oso kezkatuta
Sabelean du korapiloa
Eta negarra hustuta

OLENTZERO

*Mari Domingik ezin
Hau da kaka pila
Ta gainera pintxatu
Karroko gurpila*

*Ezin dut nik bakarrik
Egin marabila
Banoa animala
Berri baten bila*

*Bilatu ostean, ezer ez eta
Piztu zitzaion barrena
Konturatzen da astoa dela
Benetan behar zuena
Gure Olentzerok
barruan dauka
Negargura eta pena
Nire astoa, non ote dago???*
Bera da munduko onena

*Eta astoak belarra jaten
Aurkitu zuen ogia
Arrastoa jarraitu zuen
Aurkitu zuen herria
Ta barkamena eskatu zion
Ta muxu bat eman ia
Eta astoak eduki zuen
Sekulako afaria.*



Araia Herri Eskola - Asparrena
5. maila

ARTZAIN GEZURTIA

Doinua: pasaiako herritik

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1
Bazen behin artzaintxo bat
Hamalau urtekin
Eta artzaina beti
Lagun Ekhirekin
Hantxe bromak egiten
Jende guztiarekin
Aspertuta zegoen
Bere ardiekin</p> | <p>3
Mendian aspertuta
Artzain ta txakurra
Txakurra lasai-lasai
Artzainak beldurra
Eta artzainak zuen
Handia sudurra
Berrero otsorik ez
Berrero gezurra</p> | <p>5
Ez zioten sinistu
Joan zen laguntza eske
Otsoak jan zituen
Ardiak hainbeste
Otsoak jan zituen
Tripa zuen bete
Artzaina geratu zen
Ardi gabe triste</p> |
| <p>2
<i>Pastela jan ostean
Tripa dut beteta
Telebistarik gabe
Ez dut behar eta
Otsoa datorrelaaa!
Ta jendeak kezka
Gezurra esan zien
Ta hasi zen barreka</i></p> | <p>4
Laguntza eskatu ta
Inor ez bertara
Otsoa igotzen da
Mendira puntara
- otsoa etorri da
<i>Ardiak jatera!
- Ez dizugu sinisten
Gezurtia zara!!!</i></p> | <p>6
Ardiak bukatu eta
jatera bildotsa
mendia ardi gabe
egoten da hotza
Esaten da gezurrak
Duela hanka motza
Eta otsoak berriz
Hagina zorrotza!</p> |



Araia Herri Eskola - Asparrena
6. maila

Oporretan lorolorolororo
Oporretan lorolorolororo

Kaixo Joxan zer moduz
Gu Egipton gaude
Keops piramidea
Bai dela dotore
Ez daude abereak
Ez daude zizare
Ez gara itzuliko
Zu ez etorri ere

Kaixo zer moduz zaude
Gu gaude hawaien
Eguraldi ederra
egiten du hemen
Ondartza bagoaz
Eguzkia hartzen
Laster egongo gara
Gu ondo pasatzen

Kaixo zer moduz Karlos
Gu Hawaien gaude
Gu hemen eguzkitan
Eskolan baino hobe
Kaiman batekin jotzen
Horrela bai trebe
Agur musuak eta
Besarkadak ere

Kaixo zelan zaudete
Paris da kristona
Ikusi dugu Eiffel
Dorre handiena
Hemen ibai bat dago
Izena du Sena
Bizitzeko hau bai da
Leku politena

Kaixo zer moduz zaude
Gu hemen hondartzan
Gaur eguraldi ona
Egiten du bertan
Eskolan baino hobe
Gaude Caribbean
Agur ta joango gara
Egunen batean

Kaixo zer moduz zaude?
Gu hementxe okei
Ingalaterran gara hemen
Non zaude zu Hodei
Ez dakit ingelesa
Egin ezazu dei
Hementxe utzi dugu
Agur ba guztiei



Ibernaloko ikastola - Kanpezu
5. maila

TORIBIOREN ERRUA DA!!!

Doinua: Aita semeak

*Desastre guztien erruduna
Toribio maltzurra zara
Horrexegatik zubitik behera
Joango zara errekarara*

Hipoteka asko dugulako
Faltan daukagu dirua
Tabernara ere ezin dugu joan
Da Toribioren errua!

Desastre guztien erruduna...

Klaseak aspergarriak dira
Eta Toribiori esan
Bere errua dela guztia
Ta ito dadila errekan!

Desastre guztien erruduna...

Etixerako lan askorengatik
Toribio dugu errudun
Jolasteko denbora gehiago
Behar genuke Kanpezun

Desastre guztien erruduna...

Etxeko lanak ditugulako
Toribioren errua da
Errekara botatzerakoan
Poz-pozik jarriko gara

Desastre guztien erruduna...

Frontoia eta kirolegeia
Itxi digute aurpegian
Ta horregatik bota dizugu
Kristoren bronka herrian



Ibernalo ikastola - Kanpezu
6. maila

TORIBIOREN ERRUA DA

*Desastre guztien erruduna
Toribio maltzurra zara
Horrexegatik zubitik behera
Joango zara errekarara !*

Toribio zure erruagatik
Daukagu agintari txarra
Gezurrak esaten dabilena
Baina ez dauka indarra

Aita-amek beti esaten dute
Krisia dago munduan
Baina nik ez dut hori sinisten
Beraiek beti parrandan!

Hementxe gaude krisiarekin
Rajoi berekoiarekin
IVA asko igo da hemen ta
Zer egingo dugu orain

Diru asko gastatzen dabilta
Txorakeri askorekin
Eta orain frontoia daukagu
Teilatuan itokinekin.

Lanik ez dago orain herrian
Zure errua Toribio!
Gurasoak langabezia daude
Ta nire arropa "pio"

Azterketak beti jartzen ditu
Bai gure maisu maltzurak
Beti guretzako berri txarrak
Eta etxean muturrak



Maeztuko Eskola - Maeztu
4. eta 5. maila

BERTSO ASMAKIZUNAK

Doinua: Markosek egin eban.

Batzutan da handia
Bestetan txikia
Bizitzeko gustatzen
Zaio bai herria
Izan daiteke beltza
Horia, zuria
Berak sudurra dauka
Baita ipurdia

Lau orma ditu eta
Alboan du denda
Nahi nuke mantentzea
Urtetan aurrera
Asmakizuna asmatu
Ezazue benga
Txikia dugu baina
Asko ikasten da

Sudurrarentzat ez da
Oso gustokoa
Petardoak bezala
Punba ta Sustoa
Normalean zulotik
Airerantza doa
Baina batzutan uzten
Du bai arrastoa

lau hanka ditu eta
da oso zuzena
geldirik egon behar
guretzat problema
gure puzkerrak ere
hartzen dituena
Eskolan guk daukagun
Lagunik onena

Inguruko bertso-eskolak
2012-2013 ikasturtea



LAUTADAKO BERTSO-ESKOLA
(Agurain, Asparrena eta Zaldondo)
Arramel kalea z/g
01200 AGURAIN
Arduraduna: Oihane Perea
Tel: 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com
www.blogak.com/laube

MENDIALDEKO BERTSO-ESKOLA
Uxerri ondoko aretoa
Kale nagusia
01140 KANPEZU
Arduraduna: Julen Zulaika
Tel. 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com



AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.com
www.arababertsozale.org